



# AGATE DEUNA BEZPERAKO KANTU KALEJIRAK

**Otsailaren 4an**, Agate Deunaren bezperan, kopla zaharrak abestera aterako gara Ikastolatik herrira. Hortaz, ez ahaztu astearterako **makila eta euskal jantziak** prestatzea!

## 11:45EAN HERRIKO PLAZAN

Goizean zehar etapa bakoitzak bere ibilbide propioa egingo du eta **11:45ean Herriko Plazan** elkartuko gara denok.

## HAUR HEZKUNTZA

**10:45ean Haur Hezkuntza** etapa osoak bertoko jolastokian kantatuko du. Ondoren, **2 eta 3 urtekoak** Ikastolako idazkaritzara abiatuko dira. **4 eta 5 urtekoek** berriz, Motxotekaleko iturrian, Ardantzazar kaleko plazarxoan eta Lamuza plazan abestuko dute Herriko plazarako bidean.

**Arropa:** 2 urtekoek koadrodun zapia baino ez janztea eta 3, 4 eta 5 urtekoek abarkak eta gerrikorik ez ekartzea gomen datzen dugu.

Arratsaldean, irteera orduan, familiarantzako **agerraldia** egingo dute jolastokian **16:20an**.

## LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntzako etapako neska-mutilak zikloka abiatuko dira **herrirantz 10:45ean**.



**1. eta 2. mailakoek** Ikastolako idazkaritzan, tren geltokiko plazan eta Alberto Acero plazan egingo dituzte abesteko geldiuoneak.

**3. eta 4. mailakoak** Ostegieta plazan, anbulatorioko plazan eta Solozelain (Berriak) arituko dira kantari Herriko plazarara iritsi aurretik.

**5. eta 6. mailakoek** azkenik Ugarte auzora joko dute abestera.

## EURIA EGINEZ GERO

Euria eginez gero Haur Hezkuntzako kalejira bertan behera geldituko da eta Lehen Hezkuntzako, egoeraren arabera, ego-kitu edo bertan behera ere utziko da.

# IKASLE ETA FAMILIEN KALEJIRA



Arratsalde partean, **17:45ean**, Kriskitin euskara taldeak Ikastolako guraso eta ikasle guztiontzako antolatutako kalejira abiatuko da **Basalarrinatik** Kirikiño taldearekin batera.

## 19:00ETAN ASKARIA

19:00etan partaide guztiontzako askaria eskainiko da **Basalarrina Elkarte**an familiek beraiek eramandako tortila, bizkotxo eta gainerakoekin. Animatu askarirako zerbait ekartzen, izena eman ondoko formularioan:

**izena eman** 